

Burujabetza feministaz

Saioa Iraola

Burujabetzaren ideiak abstraktua, urrunekoa, kanpoko indarrek eskainia... izan behar zuela, irakurtzen nituen mezuek eraginda: Euskal Herriak burujabetza behar du! Baina zein da, nor gara Euskal Herria? Nola lortzen da hori, ez bada, hain zuzen, subjektuon jardunaz, herritarrok osatutako herriaren jardunaz? Maiz jaso dut herriak soilik izan behar duela burujabetza subjektu gisa, estatu propioek ohi bezala, eta behin burujabetza administratibo, politiko zein kulturala lortutakoan, eskumenen gaineko eskumena izanik, hasiko garela herria subjektua osatzen dugun subjektuon burujabetza prozesuez jarduten, eztabaidatzen.

Eta nire ustez, burujabetza prozesuak, soberaniak, bide eman behar digu burugorputzen jabetzatik –jabe izatetik–, kolektiboki, nazio eta herri gisa burujabetzaren subjektu soil eta bakar bat, botere politikoari eta Euskal Estatuaren sortze prozesuari baino loturik ez dagoena. Aitzitik, horrek bidelagun izan behar ditu beste hainbat prozesu, euskal jendartea osatzen dugun herritar oro burujabe izan eta askotariko zapalkuntza sistemetatik osatutatsendatuta egoteko, aske izateko, burujabe izateko. Bestela, zertarako balio diezaguke emakumeoi Euskal Herri burujabe batek, baldin eta ez badugu aske sentitzerik ema-

kume gisa, langile gisa, lesbiana gisa eta gorputz ez arautu batean bizi garen aldetik? Nola irudikatzen eta desio dugu burujabetza? Askotan hitz egin dugu herriaren burujabetzaz; demokraziaz, herriaren botereaz; soberaniaz, botere politikoaz. Ez ordea, hainbestetan, nola irudikatzen dugun edota zertarako dugun beharrezko. Feministok burujabetza prozesua zehazten hasiak gara eta horretan sakontzen jarraituko dugu... Bagoaz, badatoz, “Jostorratzak dantzant ditugu, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz”, VI. Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak. Abenduaren 13an Ondarroan ikusiko dugu elkar! •

Xake partida

Joxean Agirre

Houdini magoak bazuen numero bat generoen arteko harreman mota bat irudikatzeko balio zuena eta gizonezkoen artean arrakasta handia izan zuena: Houdiniren emazteak bere senarra soka batekin lotzen zuen lehenik eta zaku batean sartzen, ondoren zaku kutxa baten barrura bota eta giltzatu egiten zuen eta, kutxak gurpilak zituenez, bultzaka armairu batera eramanez eta han itxita uzten zuen. Emazteak hiru txalo jotzen zituen ondoren eta gortina bat zabaldu-biltzeko behar den segundo erdia aski izaten zen lekuak eta egoerak aldatzeko: Huidini bera agertzen zen emaztearen lekuan eta emaztea berriz armairuan: armairutik kutxa, kutxatik zaku eta zikutik soka batekin lotuta ateratzen zuen emaztea,

publikoa, bereziki gizonezkoak txaloka zorutzen ari ziren bitartean. Zergatik jotzen zuten gizonezkoek horrenbeste txalo? Dirudienez, emazteak magoa lotzen zuen bitartean ezkondu ziren egunaz gogoratzen zirelako eta sokak, zakuak, kutxak ikusten zituzten bitartean hipotekak, umeak, amaginarrebak ikusten zituztelako. Genero harremanekin gertatzen den antzeko zerbait gertatzen da nazioen arteko harremanarekin ere. Artur Mas Rajoirekin jokatzeko ari den xake partidaren katalan buruzagiaren mugimendu batzuk distiratsua iruditu zaizkit eta kasu honetan hiru txalo baino gehiago beharko diren arren, lekuak eta egoerak aldatzen hasi direla iruditu zait. Ez dakit Katalunia sokaz nola lotu zuten, uste

dut dinastien arteko ezkontzaren baten bidez izango zela, Nafarroako erresumen kasuan konkistaren bidez izan zen bezala. Hori gauza urruna da. Kontua da egoera aldatzen hasi dela, eta, publikotik begira egotea egokitzen bazaigu ere, horrek poza ematen du. Nazioen arteko harremanari buruz irakurri dudanez gauzarik politena Claudio Magrisek kontatzen du, nola ez. 1929an Letoniako ikasle talde bat Estonian sartu zen eta Suur-Munamaki izeneko gailurre-ra igo ziren eta, aitzurrean eginez, lau metro kendu zizkioten mendiari, Baltikoko garaiena zelako bere 317 metroekin. Estoniarrek gauzak bere onera ekarri zituzten eta, gainera, dorre bat ere eraiki zuten Baltikoko gailurrik garaienari buruz zailantzarik egon ez zedin. •